





## Emakumeak eta zientzia



Ikastetxea eta tokia:  
Castroverde Ikastetxea,  
Santander

Data:  
2021-2022 ikasturtea

Harremanetarako pertson:  
Belén Ordóñez y Paula Lavín

Harremanetarako datuak:  
paula.lavin@colegiocastroverde.org

### Zentroaren testuingurua, hezkuntza-maila eta ikasleen profila:

Castroverde ikastetxea ekimen askeko zentroa da. Hezkuntza-ituneko erregimenaren barruan dago, 1977. urtetik hezkidetzat duena, eta hainbat hezkuntza-etapaz osatua: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta Batxilergoa.

Ikastetxea hiriaren erdigunean dago, eskola-biztanle zabaleko eta gizarte-desberdintasuneko bi eremutara zabalik. Gizarteratze bikoitz horrek gizarte-eta kultura-egoera desberdineko ikasleen arteko harremana ahalbidetzen du, eta Castroverde ikastetxeari eta bertan trebatzen diren ikasleei oreka eta estilo propioa ematen dizkie Kantabriako errealitatean.

Familia-egoera eta -eredu desberdinek, jatorri nazional eta/edo kultural desberdinek eta eskola-aukeraketan izandako motibazio desberdinek gero eta nabariagoa egiten dute pluraltasuna eta aniztasuna, eta horrek eskola inklusibo baten hezkuntza-planteamendua aberasten eta ahalbidetzen du.

# ESperientz iaren deskri bapen laburra

## Zein izan zen eSperientzia?

Helburua zen DBHko I. mailako ikasleek (plastikako, ikusizko eta ikus-entzunezko hezkuntza-irakasgaitik abiatuta) mundua aldatu zuten emakume zientzialarien ikerketak eta asmakizun zientifikoak eta biografiak ezagutzea, emakume horietako batzuen argazkiekin eta informazio-kartelekin erakusketa bat eginez.

## Zein zen nire helburua?

Proposamenean garrantzitsuena zen, herritarren hezkuntzaren berezko alderdiak —eta bereziki genero-ekitateari buruzkoak— tutoretza-jardueretan eta curriculum-arloekin zerikusirik ez duen zerbait bezala landu beharrean, arloen programazioan sartzea irakasgai bakoitzaren gainerako edukiak batera. Horrela, proiektu hau gauzatzean, ikasleek plastika- eta ikus-hezkuntzako irakasgaiaren berariazko edukiak bereganatzen zituzten, eta, aldi berean, emakumeek arlo zientifikoan eta teknologikoan duten zeregina ezagutzen eta bistaratzen zuten.



## Zer egin nuen eta nola?

Proiektuak bi fase zituen. Lehenik eta behin, emakume zientzialaria, haren biografia eta ekarpena bilatu, eskuratu eta aztertu genituen. Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedraren blogean argitaratutako “Emakumeak zientzian: mundua aldatu zuten 50 aitzindari ausart” izenekoaren edukiak erabili ziren.

Bigarren fasean, A3 formatuko erakusketa-kartel batzuk egin genituen. Horretarako, marrazketako “erretratua” curriculum-edukia eta “koloretako arkatzen” teknika plastikoa aplikatu genituen.



Plastikako kontzeptu horiekin, ikasleek erretratua, asmakizuna edo ikerketa eta kartel biografiko bat irudikatu zituzten, aurrez aukeratutako emakume zientzialariaren datu garrantzitsuenekin.

Proiektua amaitzeko, erakusketa bat egin zen ikastetxeko korridoreetan, eta emakumeek zientziaren arloan egiten duten lana zabaldu eta balioetsi zen. Horrekin batera, etorkizunean ikasleek zientzia, teknologia eta ingeniartzako ikasketetan parte har dezaten sustatu zen.

## Zer lortu dut/dugu?



Proiektu honen bidez, ikasleak jabetu ahal izan dira emakumeek zientziaren eta teknologiaren esparruetan duten presentziaz eta garrantziaz, baita esparru horietan duten eginkizuna ikusezin bihurtu izanaz ere.

Halaber, plastika-lengoiaren eta ikusizkoaren berezko trebetasunak eta edukiak landu dituzte; besteak beste, sorkuntza plastikoak (lanaren helburuaz jabetuta) eta lanaren plangintza egin dituzte, eta aurretiazko dokumentazioa bildu dute. Hori guztia, ekimen-, sormen- eta irudimen-balioak erakutsiz.

Aldi berean, erakusketa ikastetxeko espazio komunetan egitean, ikusarazten lagundu da, eta horrek gainerako ikasleei eta irakasleei lagundu die bertan ordezkaturik dauden emakumeen lana ezagutzen eta balioesten.

## Nire ustez, eskola-egiturako eta testuinguruko zein elementu izan dira lagun-garri edo oztopo zure helburuak lortzeko?

Lagungarria izan da InteRed-en bidez hezkidetzari eta genero-indarkerien prebentzioari buruz irakasleek ikastetxean jasotako prestakuntza, baita ikasturte hasierako lana ere, GHGHaren, hots, Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren berezko edukiak curriculum-arlo bakoitzeko programazioetan txertatzeko.

Eta modu orokorragoan eta funtsezkoagoan, ikastetxearen printzipio pedagogikoak; aipagai dituzte eskola inklusiboa, gizartearekin konprometitua, hurbila, berritzailea, demokratikoa eta parte-hartzailea.

Zer ikaskuntza eta  
erronka atera  
ditugu?

Jarduera honetatik atera dugun ikaskuntza eta erronka nagusia dira posible dela curriculum-edukiak herritartasun globalaren ikuspegitik lantzea, irakasgaien martxa eten beharrik gabe, modu naturalean integratuta.

Esperientziaren  
prestaketan  
eta gauzatzean  
parte hartu  
duten pertsonak  
edo erakundeak

Plastika- eta ikus-hezkuntzako irakasleak eta DBHko I. mailako ikasleak.

Oinarrizko/  
Erreferentziazko  
baliabideak edo  
materialak

Mujeres con ciencia - EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren blog bat.

<https://mujeresconciencia.com/2016/03/28/women-in-science-50-fearless-pioneers-who-changed-the-world/>

